

GIZA ESPERIENZIA

Benetako giza esperientzia: funtsezko esperientziak

Esperientziaz ari gara. Askotan bizi izan dugun guztiari esaten diogu esperientzia, hau da, *bizipenei*. Hala ere, giza esperientzia, bizipena baino zerbait gehiago da. Nagusiki, *gertaera edo pertsona batekin era kontziente eta hausnartuan bizi izan dugun hartu-eman*a da. Era batera edo bestera, esku-hartzera eramane eta barrutik aldatu gaituen hartu-eman da.

Askotarikoak izan daitezke gizakiaren esperientzia sakonak:

- Adiskidetasunaren, maitasunaren, barkatzearen eta barkatua sentitzearen esperientziak.
- Egoera jakin batzuetan baliagarri sentitu izanaren esperientziak.
- Askatasunaren, bizikidetasunaren, herritar izatearen, nortasuna bilatzearen esperientziak.
- Oinazearen, sufrimenduaren... esperientziak.

Guzti horiek funtsezko esperientzia dira gizon-emakumearentzat, gizakiaren bizitzako beharrei erantzuten dietelako. *Funtsezko esperientziak edo bizitzako esperientzia sakonak dira*.

Hainbat maila funtsezko esperientzietan

Jakina, hainbat maila dago funtsezko esperientzia horien artean: batzuk sakonagoak dira, besteak ez hainbeste... Denek ez gaituzte berdin inplikutzen. Bistakoa denez, funtsezko esperientzia sakonek *eragina* dute gure nortasunean eta *moldata* ere egiten dute:

- Nabarmen aldatzen gara, maitasuneko harremanen bati ekiten diogunean.
- Baliagarri eta emankor sentitzearen esperientziari esker, gogoaren beheralditik ateratzen gara askotan.
- Oinazeak, gaixotasunak, senide edo lagun kutunen bat galtzeak... hondoratu egiten gaituzte askotan eta gure izaera ozpindu egiten dute, edo jasaten dutenak araztu edo gizatiartu egiten dute...

Funtsezko esperientziak eta berri ona

Ez da erraza bere funtsezko esperientzia guztiak nolabaiteko osotasunarekin bizi izan dituen edo bizi dituen norbait aurkitzea. Maiz gertatzen da guregan esperientzien zatiketa. Aberatsak gara batzuetan eta txiroak beste hainbatetan. Hain zuzen ere, esperientzia guztien bizipen orekatuak ekar dezake benetako giza osotasuna. Erich Frommen esanetan, bizitzan bost behar nagusi ditugu eta horiei erantzuten saiatzen gara guztiok:

1. *Maite gaituztela sentitu...*
2. *Baloratzen gaituela, baliagarri eta emankor garela sentitu...*
3. *Nork bere burua berretsi, nortasuna osotu...*
4. *Bizitzan zentzuren bat izan...*
5. *Azken batean, bizitzan seguru sentitu...*

Bizitzako behar horiek guztiak orekaz asetzea da gizon-emakumearen xederik behinena. Delako xede horiei egoki erantzuten dien eskaintza oro, berri on bezala hartuko da.

Giza esperientzia eta jakituria

“Honek asko daki, baina ez du esperientziarik”, esaten da sarritan herri mailan. Hausnartutako esperientziak, esperientziaren ostean iritsitako ondorio argiek ematen digute *jakituria*.

Bizitza dastatu duena, funtsezko esperientzia horietan zaildu dena, esperientzia horiei ahogozoa atera diena da jakintsua. Izan ere, gaztelaniazko ‘sabiduría’ hitza, ‘saborear’ hitzetik dator, hau da, dastatzearekin zerikusia du.

Diskurtso-gaitasun handia izan dezakegu, jakintza ugari metatu... baina horrek bakarrik ez digu funtsezko esperientzietan aberatsa izatea ekarriko.

Esperientzia pertsonalez ezagutu

“Badakit zer den hori, nik neuk bizi izan dudalako”. Horrela hitz egiten dugu, zerbait esperientziaz ezagutzen dugula baieztatzeko. Ikuspuntu horretatik, errealitatearen eremuren bat, ez entzutez bakarrik, bertan izan delako, bizi, jasan edo bertan jardun duelako baizik, jotzen dugu norbait aditutzat. Adibide bat: erraztasun handiz onartzen dugu, ama edo aita batekin egon izan ez bagina edo ama edo aita izatearen esperientzia lehen pertsonan bizi izan ez bagenu, amatasunari buruzko ezagutzak eskasak izango lirakeena, nahiz eta gaiari buruzko tratatu guztiak irakurri eta ikasi.

Esperientzia, orduan, ezagutzaren iturria da. Baina... zein ezagutzaren iturri? Bizipenek, egoera, eremu edo lagun batekin hartu-eman luzea izatearen poderioz lor dezakegun konfiantza eta jakintzak dakarkiguten ezagutza. Pertsona batek esperientziatu duen hura ezagutzen duela benetan dioskue gaur egun giza zientziek. Karl Rogers psikosoziologo entzutetsuak, hauxe zioen duela urte asko:

“Gizakiarengan eragin dezaketen ezagutza bakarrak, berak antzeman eta bere egin dituenak baizik ez direla sinestera iritsi naiz”.

Horrexegatik da hain zaila norberarentzat estimagarria den jarrera edo balioren bat beste batzuegan sorraraztea, beraiek bizitzan antzeko esperientziarik bizi izan ez badute behintzat. Honek garrantzia handia du fedearen transmisiorako. Ezinbestekoa da esperientzia pertsonala: Kristo ezagutu, Berarekin bat egite pertsonala esperientziatu izanagatik; bere hurkotasuna eta presentzia esperientziatu anai-arrebekin bat egitean, otoitzean, eta ospakizunean, bizitzako era askotako inguruabarretan, errealitateari “fedearen begiez” begiratzen ikasi ezker bere “egotea” antzemateko aukera ematen diguten eremuetan.